



## ■ BERTSOLATA

### Urte Zahar erronda

Bertso Eskolak eta Ohitura Zaharrak abesbatzak, Urte Zahar erronda egingo dute gaur. 17:30etan hasiko dute buelta. ||

## ■ KIROLDEGIA

### Kiroldegia itxita, gaur eta bihar

Kiroldegia itxita egongo da gaur eta bihar. Errege Egunean, berriz, goizez bakarrik egongo da zabalik. ||

## ■ HONDAKINAK

### Bilketan aldaketak

Hondakin bilketan aldaketak izango dira gaur. Ordubate aurreratuko da bilketa. Beraz, 22:00ak baino lehen atera beharko da organikoa. ||

## ■ KRONIKA-BERRIAK

### Azken eguna, errifak ekartzeko

Kronikak eta Berriak elkarteak antolatu duten saski zozketan, berriz zozketatuko da bat, sari-duna ez baita azaldu. Bigarren zozketa honetan sartzeko, Kronikan (Larramendi 11) entregatu behar dira errifak, izena eta telefonoa idatzita. Gaur da azken eguna. ||

## ■ GAZTE ASANBLADA

### Mus txapelketa, Urte Zahar egunez

Mus txapelketa jokatu da gaur Kontraktantxa Gaztetxean, Urte Zahar egunez. ||

## ■ PORTU AUZOA

### Santa Barbara mendi buelta, gaur

Hainbat ekintza antolatu dituzte gabonetan, Portu auzoan. Gaur, mendi buelta egingo dute Santa Barbara, 10:30etan abiatuta. ||

## ■ PRESO ETA IHESLARIAK

### Autobusak, Bilboko manifestaziorako

Manifestazio nazionala egingo da Bilbon, urtarrilak 10ean, eta hara joateko, autobusak egongo dira 15:30etan. Apuntatzeko zerrenda Garinen dago. ||

## ■ ETXEBESTE FARMAZIA GAUEKO GUARDIAK

# «Lana baino gehiago, kezka dago gauetan»

Etxebeste farmaziak (Elkano kalea, 9) egingo ditu gaueko guardiak, hastear den urte berrian. Larrialdiak izaten dira gaueko bisita nagusiak. 22:00etatik 09:00etara egongo dira bertan.

ETXEBESTE farmazia (Elkano kalea, 9) izango da erreferentzia aurten, gauez edozein sendagai erosi behar dutenentzat. Gaueko guardia guztiak egingo ditu Etxebestek, 2015 urtean. 22:00etatik 09:00etara egingo dute turnoa, gerta daitezkeen larrialdiei erantzuteko. Kontakurako telefonoa: 943 55 20 87.

Horretarako, gaueko turno-erantzuleak diren lan-garaiak izango dute: Marian Arbaiza, Yolanda Caro eta Mar Santamaria. Beraiek egingo dituzte guardiak. Eguneko martxa, berriz, farmaziako arduradunek eramango dute: Jorge Etxebeste, Carmen Noblejas, Maider Indart eta Ana Etxeberriak.

### «Lan gutxi, baina larrialdiak»

Beraiek ez dituzte, beraz,



Maider Indart, Jorge Etxebeste eta Ana Etxeberria, farmazian.

gaueko bezeroak atendituko, baina badaukate esperientzia horretan. Urte askotan aritu da Jorge Etxebeste, gauez: «lana gutxi izaten da, baina larrialdiak izaten dira gutxi

horiek. Kezka eta ardura dago gehiago, gaueko turnoetan». Urgentziazko gauzak izaten dira, anbulatorioetik zuzenean datozenak.

Eguneko martxan ez du

eragin askorik izaten horrek: «normaltasunez jarraitzen dugu lanean. Gauean zerbait baldin badago, beharbada egunez pasatzen digute. Baina gainerakoan, berdin jarraitzen dugu», diote.

### Eguneko guardiak, txandaka

Etxebeste farmaziari egokitu zaio gaueko guardiak egitea, 2015ean; egunekoak, berriz, txandatu beteko dituzte, Hernani, Astigarraga eta Urrietako farmaziek. Guardia duenak kubritzen ditu 13:30etatik 16:00etara eta 19:30etatik 22:00etara bitarteko hutsuneak.

Hain justu, Etxebestek berak egingo ditu eguneko guardiak gaur eta bihar, egutegi berriari heldu baino lehen: «eguneko guardia bukatu, eta gauekoa hasiko dugu». ||

## ■ WUKROREN ALDEKO SAN SILBESTREA

# Urtea lasterka bukatuko dute, Wukro gogoan

Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa egingo da gaur Hernanin. Adin guztietakoak ariko dira korrika, 17:30etan Plazatik abiatuta, urtea ondo bukatzeko.

KORRIKA agurtuko dute urtea, ehundaka haur, gazte eta heldu hernaniarrek. Wukroren aldeko San Silbestre lasterketa egingo da gaur, 17:30etan hasita, Plazatik. Bigarren urtez antolatu dute, iazko arrakasta ikusita.

Haurrak izango dira parte hartzen aurrenekoak, 0 eta 8 urte artekoak; 17:30etan abiatuko dira. 9 eta 13 urte artekoak, berriz, 17:35etan

irtengo dira. Erdigunean zehar ibiliko dira guztiak, eta izen ematea doan izango da.

### Helduen lasterketa, 17:45etan

Haur eta gaztetxoek bukatutakoan, helduek hartuko dute txanda. 17:45etan abiatuko dira, 4 kilometroko ibilbidea osatzeko. Lehia eta umorea ez dira faltako, ibilbide osoan. Izan ere, mozorrotuta ere aterako dira asko, urtea umore onean

bukatzeko. Saria ere izango da, mozorro politena eta graziosoena janzen duenarentzat.

### Apuntatzeko aukera oraindik, irteeran

Aurretik izena eman dutenek, irteera puntuan jaso beharko dituzte dortsalak, 16:00etatik 17:40etara bitartean.

Apuntatu ez direnek, badute aukera oraindik ere, urtea lasterka bukatu eta ondo

pasatzeko. Irteeran eman ahal izango dute izena, 16:00etatik 17:40etara bitartean. 10 euro izango dira.

### Ikusentzunezko lehiaketaren sariak, bukaeran

Lasterketa aprobetxatuz, gaur banatuko dituzte sariak, Hernani eta Wukroko bizimodua islatzeko asmoz egin den ikusentzunezko lehiaketan. Lasterketa bukatzean izango da sariketa. ||



**ELIAPINTZAILEAK**

Ni, **GASPAR** ileapintzailea **EUSTAQUIO**, jubilatuta egingo naiz, Hernanin 42 urtez ileapintzaile moduan aritu ostean.

Nire alabak, **ISABEL VELIS ELIZONDO** ileapintzaile profesionalak ordezkatuko nau. Gizon eta emakume ileapintzaile tituladuna eta 22 urte baino gehiagoko esperientziaduna da.

Agur, eta eskerrik asko nire bezero leialei.

Dolaminak nire bezero izandako guztien familiei.

**ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!**

Betira arte nire bezero estimatuak,

Elkano, 15. Hernani. 943 55 63 03



**RIOJA TABERNA**

2014. urtea ere joan zaigu...

**URTE BERRI ON GUZTIOI!**

Kale Nagusia, 6. Hernani

**TELEFONAK** **Taxiak:** 943 550093 **Udaltzaingoa:** 943 333288 **DYA:** 943 464622 **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **Anbulatorioa:** 943 006666 **Jokalarri anonimoak:** 943 331103 **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103  
**FARMAZIAK** **GAUR:** Egunez: **Etxebeste** Elkano 9 **943 552087** • **Gauetz: Aizpuru** Latsunbeberri 11 **943 336077**  
**FARMAZIAK** **BIHAR:** Egunez: **Etxebeste** Elkano 9 **943 552087** • **Gauetz: Etxebeste** Elkano 9 **943 552087**

## ERREMONTA

# Momentuko onenak aurrez aurre, Buruz Buruko Masterrean

Gaur hasita, buruz buru ariko dira bost erremontista:

Barrenetxea IV, Ion, Etxeberria IV, Endika eta Uterga. Finala, urtarrilaren 10ean.

BURUZ Buruko V. Masterra jokatu da Galarretan, gaur hasita, eta momentuko bost erremontista onenek neuruko dituzte indarrak. Rankingari begiratu diote, torneo-ko protagonistak aukeratzeko, eta San Miguel eta Urrizaren bajekin, hurrengo bost postuetan daudenak ariko dira: Barrenetxea IV hernaniarra, Etxeberria IV, Ion, Endika eta Uterga.

Endika eta Ion izango dira aurrez aurre, gaur. Endika Barrenetxeak, berriz, Etxeberria IVren kontra izango du kanporaketa, urtarrilak 3an. Errege bezperan jokatu dute semifinala, bi irabazleek. Eta finalean zain, Uterga izango dute, urtarrilak 10ean.

**«Momentu onenean datorkit torneo hau»**

Gorputzaldi onarekin iritsiko da Barrenetxea. Baina, batez



Ion, Etxeberria IV, Barrenetxea IV, Endika eta Uterga ariko dira torneoan.

ere, konfiantzarekin: «udaren ondoren, behera egin nuen, jokoa ezin hartu, eta konfiantza puntu bat falta nuela. Azken hilabetean hartu dut berriz konfiantza eta jokoa».

Aurkari gogorra izango du, ordea: «indartsuena da Etxeberria, Utergarekin batera. Gora egin du azken bi urteotan, eta onenen artean dago. Baina gogoa daukat, aukerak daukadala uste baitut». Garbi dauka nola jokatu, azpeitarrari min egiteko: «sakea aprobeixatu behar dut, eta partidua luzatu, fisikoki hobeto nagoelako».

Irabaziz gero, aukera asko ikusten ditu Barrenetxeak, finalean sartzeko: «Endika eta Ion atzelariak dira, eta antzeko gabeziak dauzkagu denok».

**«San Miguel kanpoan geratu da, kantxan erakutsi duen jarreragatik»**

Bi baja garrantzitsu izango dira txapelketan. Lesioagatik Urrizarena, eta antolatzaileen erabakiz San Miguelena: «kantxan erakutsi duen jarreragatik geratu da kanpoan; ez dator bat enpresak eskatutakoarekin», argitu du Jose Mari Barrenetxeak. ||

## FUTBOLA JOXEAN ARABIOTORREREN II. OMENEZKOA



Finala jokatu aurretik, taldeko argazkia egin zuten Joxean Arabiotorrerekin. Finalako argazkiak: [www.kronika.net](http://www.kronika.net)

### Joxean Arabiotorreri omenaldi onena, torneo irabaztea

Omenaldi beroa egin zioten atzo goizean Joxean Arabiotorreri, CD Hernaniren mesedetan egin duen lanagatik. Oroigarri ederrak eman zizkioten, baina denetan ederrena, bere izena daraman torneo Hernanik irabaztea izan zen. Penaltietan irabazi zuten finala neska jubenilek, Añorgaren kontra 0-0 berdindu ondoren. Aurretik, Oiartzun kanporatu zuten txuri-berdeek (2-0), semifinaleran. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**PISUKIDE EUSKALDUNAREN BILA NABIL**, Portu auzoan bizitzeko urtariletik aurrera. Deitu: 615 735 815.

**ETXEKO KONPONKETAK egiten dira**; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Iñigo Royo Masajista**. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,...

943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

## Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:00ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funerarria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

**† GREGORIO OJANGUREN RUIZ DE LARRINAGA**  
 Herenegun hil zen, 67 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta  
**- Goian Bego -**

Emaztea: Carmen Hurtado; seme-alabak: Jorge eta Ainhoa, Maider eta Mikel; bilobak: Iraia eta Axel; ama: Mercedes; anai-arrebak: Amelia, Matilde (†), Jesús eta Rosa, Carmen eta Luis Mari, Tere eta Antonio; ezkon anai-arrebak: Luis Mari, Clara eta Gregorio (†), Carlos eta Asun, José Luis eta Pili; izeba-osabak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetezela **GAUR, ASTEAZKENA, arratsaldeko SEIETAN, SAN JOAN BATAITZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

**Hernanin, 2014ko abenduaren 31n**

Helbidea: Oarso, 6  
 OHARRAK: Gorputza Hernaniko ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egingo da eguerdiko 12:00ak arte.

**GREGORIO OJANGUREN RUIZ DE LARRINAGA**

Ez zaitugu inoiz ahaztuko.

**HERNANI ETA BARGOTAKO LEHENGUSUAK**

**Hernanin, 2014ko abenduaren 31n**

**GOYO OJANGUREN RUIZ DE LARRINAGA**

Ez agurrik, ez adiorik gero arte baizik.

**ZURE LAGUNAK**

**Hernanin, 2014ko abenduaren 31n**

**GREGORIO OJANGUREN RUIZ DE LARRINAGA**

Ez zaitugu inoiz ahaztuko, ez zaitugu inoiz galduko gure bihotz barrenean eramango zaitugu betiko.

**URDANGARIN UGALDE SENDIA**

**Hernanin, 2014ko abenduaren 31n**

**GREGORIO OJANGUREN RUIZ DE LARRINAGA**

Betiko izango zaitugu gogoan.

**PEÑA KAÑURROS**

**Hernanin, 2014ko abenduaren 31n**

**LEKUONA**

*Bihar okindegia irekita egongo da*  
 10:00 - 13:00  
*Ogia enkargatzea komeni da, eskerririk asko!*  
*Errege rosakoak ere egiten ditugu enkarguz.*

Aristizabal 9, behea, Hernani. Tif: 943 33 59 45